

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2020ko urtarrilaren 15ean proposamen-txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2020. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideen aplikazioa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.
2. Onestea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 73.380,44 eurokoa izanen dela.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias